

# Azadia izotzetan



Jakoba Errekondo

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Kataluniako Puigcerdá herria mendian da, Pirinioetan, 1.200 metroko altueran; negu gogorren bizitokia. Hemen klima zakarragoa bizi genuen garaia gogora ekartzen ditu hangoak.

Ehunka urtean aza (*Brassica oleracea*) jan dute han, gure moduan. Toki hotzetako hotz gorrietan ere ederki irauten du baratzean. Endemas, hotzak hobetu egiten du. Ahosabairik duen edonork badaki: izotzak pasatako aza gozoagoa da; alde ederrekoa! Ahosabaia ahozeru bihurtzen du.

Azak bezala, ez zuhaitz ez zuhaixka ez den landare ugarik loratzekotan, hotzaldi eder bat igaro behar du. Hotz horrek tontortzea, garatzea, burutzea, hozitzea eragingo dio. Hotzaren akuilukada hori gabe, jai du azaren loreak.

Uztarri berean, hotzarenean, lotu ote daiteke azaren pare hau: gozatu egiten du eta loratzera kilikatu. Hotzaren he-deak harrapatu duen azak badaki: lo-



Ahosabairik duen edonork badaki: izotzak pasatako aza gozoagoa da.

JAKOBA ERREKONDO

ratzera jarri behar da, dituenak eta ez dituenak eman beharko ditu bere kasta betiketuko duten haziak sortzeko. Bu-kaera hastera doa. Bereak egin eta bere buruaz beste aza batzuk izango direnak egingo du. Bizi osoan bildu dituen gordailuak horretara bideratuko ditu: zuztar gizenean eta buru handi kobatuan pilatutako jakiak dantzan jarriko ditu. Jaki horiek kimua piztuko dute: lorearen gara abiatuko da hosto artean gora; burua badu, era ikusgarrian lehertu eta zeharkatuko du.

Aza-gara elikatuko duen jaki-salda hori erreserbetako almidoitik dator. Almidoi horixe da izotzaldiak azukre bihurtzen duena. Azukreak dakar lorea. Azukreak ahozerutzen du ahosabaia. Azukrearen uztarriak bukatzen du azarena.

Ederki dakite Puigcerdán. Otsail amaiera aldera, urtero ospatzen dute azaren gorazarre jaia: *Festa del Trinxat*, aza jana. Bereziki hazten duten bertako aza aldaera bat, izotzak ondu ondoren, jaia. Bejondeiela! ■

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba, Larraulgo Museoko taldetik idazten dizut. Aurten lihoaren inguruan lan asmo bat daukagu: emakumeen ofizio zaharra berreskuratu eta lihoaren lanketa guztia egin. Martxoan ereitea egokitzen zitzagun eta ilgoran egiteko asmoa genuen baina gure eskuartean tokatutako liburu batean ilbeheran ereiteko azaltzen da. Zuntzak ateratzea komeni da haria sortzeko? Eta horretarako ze ilargi alditan ereitea komeni zaigu? Mila esker.

Pili Otaegi (Larraul)



Ehun-lihoa (*Linum usitatissimum vulgare*).

H.ZELL-CC BY SA

Kaixo Pili. Lihoaren lanketa diozunean ehun-lihoaz ariko zara noski, hau da, *Linum usitatissimum vulgare*. Olio-tarako eta abar, beste aldaera batzuk erabiltzen dira.

Ehungintzarako komeni zaizunaren arabera erabakiko nuke nik. Haritarako zuntzak luze eta meheak nahi izatera ilgoran erein, baina ahulak izan daitezke, lantzeko hauskorak, alegia; aldiz, zuntzak moxeagoak baina sendoak nahi izanez gero, ilbeheran erein. Liho-saila edo

lihadia nirea balitz, ilbeheran egingo nuke. Hala ere jokorako aukera paregabea ematen du lihoak. Zuen esku.